

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4116

AGINDUA, 2023ko irailaren 1ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko hirugarren mailako, Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasketak egiten ari diren ikasleei eskola-garraioko zerbitzua ematen jarraitzea agintzen duena.

Eskola-garraioren prestazioa Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraiari buruzko maiatzaren 19ko 69/2015 Dekretuak arautzen du, eta, hezkuntza-zerbitzurako berdintasunezko sarbide hori bermatzeko, Hezkuntza Sailak ikasturte bakoitzerako antolatu eta finantzatzen du eskola-garraiota, irakaskuntza-zerbitzu publikoari hertsiki lotutako zerbitzu gisa.

Eskola-garraioko zerbitzu horren zati handi bat, 69/2015 Dekretuaren bigarren artikulua lehenengo apartatuko «a») letran xedatutakoaren babesean, hezkuntza-arloan eskumena duen sailak kontratatutako ibilgailuen ibilbideen bidez ematen da, eskola-umeak errepidez garraiatzeko zerbitzu publiko erregularra (erabilera berezikoa) ematen baitute ibilgailuok.

Aipatutako kontratuen lizitazioa auzigai izan da maiz azken urteotan. Horrela, bada, Sailak 2021ean izapidetutako hiru (3) kontratazio-espeditenteen aurrean, hamalau (14) helegite jarri zituzten garraio-elkarte eta enpresek Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan (KEAO); era berean, zazpi (7) helegite jarri ziren Sailak 2022an lizitatutako hiru (3) espeditente berrien aurka.

Elkarte eta enpresek lizitazio-prozedura horiek arautzen dituzten pleguen aurka jarritako errekurtsio ugariak eragotzi egin zuten 2022-2023 ikasturtearen hasieran eskola-garraioko zerbitzua osatzen duten ibilbideetan enpresa esleipendun berriak izatea zerbitzua emateko.

Aurrekoaren ondorioz, 2022ko irailaren 7an, Hezkuntza Sailak eta Euskadiko eskola-garraioko zerbitzuak ematen dituzten enpresen elkarteak akordio bat lortu zuten, 2022-2023 ikasturtean aurreko esleipendunek eskola-garraioko zerbitzua ematen jarraituko zutela bermatzeko, honako baldintza hauetan: (i) une horretan indarrean zegoen zerbitzu-prestazioaren prezioa ehuneko hogeita lau koma bat (% 24.1) igotzea erabaki zen, eta (ii) erregaiari egotz zekiokoen kostua eguneratzeko formula bat adostu zen, prezioak izan zezakeen aldaketaren arabera. Ehuneko hogeita lau koma bateko igoera hori (% 24.1) 2021ean adostutako ehuneko zazpiko hazkundearen (% 7) osagarri zen.

2023. urtean, Hezkuntza Sailak hiru (3) kontratazio-espeditente berri jarri ditu abian. Berdintasuna, lehia eta ETEen kontrataziorako sarbidea sustatze aldera, kontratazio-espeditenteen kudeaketa eraginkorrago eta efizienteago baten beharrezkin eta lizitatu beharreko ibilbide kopuru handia dela eta, Hezkuntza Sailak espeditenteak lurraldeka banatu zituen. Horrela, kontratazio-espeditente bat lizitatu zen lurralde historiko bakoitzeko:

– C02/028/2022 espeditentea –Araba–, lehiaketarako 140 ibilbide eskaini zituena (2023ko urtarilaren 16an argitaratua).

– C02/003/2023 espeditentea –Gipuzkoa–, lehiaketarako 145 ibilbide eskaini zituena (2023ko martxoaren 31n argitaratua).

– C02/027/2022 espedientea –Bizkaia–, lehiaketarako 199 ibilbide eskaini zituena (2023ko urtarilaren 16an argitaratua).

Lizitazio horien aurka, berriz ere, enpresa eta elkarte ezberdinen partetik, sei (6) helegite jarri ziren Kontratuen inguruko Errekurtsoen Organoan (KEAO). Guztiak ezetsi ziren.

Helegite horiei dagokienez, esanguratsua da hainbat alderdi nabarmentzea. Lehenik eta behin, errekurtsogileetako batzuek lizitazioaren oinarritzko aurrekontua egokia ez zela edo garraio-enpresen egungo errealitatearekin edo egoera ekonomikoarekin bat ez zetorrela esanez egindako alegazioen aurrean, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak ulertu zuela alegazio orokorrak zirela, oinarririk gabeak, eta ezetsi egin zituela, uste baitzuen errekurtsoan ez zegoela lizitazioaren oinarritzko aurrekontu horren zuzentasunik eza egiaztatzeko eta kuantifikatzeko kalkulu zehatzik.

Egoera hori aurreko urteetan ere errepikatu zen; izan ere, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak banan-banan ezetsi zituen Lizitazioaren Oinarritzko Aurrekontua merkatuaren errealitatera egokitzen ez zela argudiatu zuten errekurtsoetan aurkeztutako antzeko alegazio guztiak.

Bigarrenik, oinarri horien gainean, zenbait helegiteren kasuan, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak adierazi zuen errekurtsoa jartzean fede txarrez edo ausarkeriaz jokatu zela, errekurtsogileei «kontratua esleitzeko prozedura luzatzeko asmoaren zantzu argiak» ikusi zizkielako, hitzez hitz.

Hirugarrenik, helegite horiek ezetsi diren arren, errekurtsogileetako batek ere ez du erabaki administrazioarekiko auzibidera jotzea.

Hala ere, luzapen-asmo horiekin bat etorritz, lizitazio-espediente horietan, lizitatutako ibilbideen ehuneko hamazazpik (% 17) soilik izan du, gutxienez, eskaintza bat garaiz eta behar bezala aurkeztu duen lizitatzaileraren bat.

Zehazki, Arabako Lurralde Historikoari dagokionez, lizitatzailleek ehun eta hogeita hemezortzi (138) ibilbideetatik hamalautan (14) bakarrik parte hartu dute lehian, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokionez, ehun eta hogeita hemeretzi (139) ibilbideetatik hirurogeita bostetan (65) aurkeztu dira lizitatzailleak. Daturik esanguratsuena Bizkaiko Lurralde Historikokoa da, lizitatutako ehun eta laurogeita hamar (190) ibilbideetatik enpresa lizitatzaille bakarra egon baita bertan, zeinak ibilbide bakarrerako eskaintza aurkeztu baitu.

Errealitate hori ikusita, 2023ko uztailaz geroztik, Hezkuntza Sailak zerbitzu horiek eskaintzen jarraitzeko eskaintza egin die gaur egun garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresei, lizitazio-prozesuan eskaintzarik jaso ez zuten ibilbideetan, harik eta esleipendun berririk egon arte lizitazio-prozesu berri baten ebazpenaren ondorioz.

Zerbitzu hori 2022-2023 ikasturteari dagozkion baldintza eta termino beretan ematea eskaini da, hau da, 2022ko irailaren 7an elkarrekin lortutako akordioaren arabera.

Eskaintza egin den arren, agindu honen eranskinean zerrendatzen diren ibilbideek, gaur-gaurkoz, ez dute zerbitzua emateko prest dagoen enpresarik.

Agindu honen datan, ibilbideen ehuneko hogeita hamaikak (% 31) baino ez du zerbitzua emateko moduan den konpainia edo aldi baterako enpresa-elkarte bat. Lurralde historikoa, Gipuzkoako ibilbideen ehuneko laurogeita hemezortzi (% 98) estalita daude, ehuneko bost (% 5) Arabaren kasuan, eta bat bera ere ez, Bizkaiaren kasuan.

Behin azaldu berri dugun errealitatea egiaztatuta, aurrekari judiziala eta Kontratazioko Aholku Batzorde ezberdinek emandako ebazpenetara jo behar dugu, behin eta berriz ebatzi baitute litekeena dela, kontraturik indarrean egon ez arren eta betiere zerbitzu publikoan nahasmendu larrik ez sortzeko baldintza betetzen bada, administrazioak xedatu ahal izatea eta kontratistari agintzea zerbitzu hori ematen jarrai dezan, harik eta zerbitzu hori ez emateak ekarriko lukeen kaltea saihesteko neurri egokiak har daitezkeen arte.

Aurrekari horien barruan, salbuespenezko kausek, eskuartean dugunak kasu, justifikatzen dute kontratistaren prestazioa luzatu ahal izatea salbuespenezko egoera hori arintzeko ezinbestekoa den aldi, zerbitzua ematen jarraituko dela bermatzeko beharra kontuan hartuta.

Kasu horretan, behin eta berriz ebatzi den bezala, kontratistak eskubidea izango du egindako kostuarengatik kalte-ordain bat erreklamatzeko, bai eta dagokion industria-onura ere. Horrela, kontratistari inongo kalterik sortzea ekiditen da.

Antzeko beste erabaki batzuk ere berariaz jasota daude, adibidez, lurreko garraioari buruzko araudian. Hala, Lurreko Garraioari buruzko 16/1987 Legearen 85. artikulua xedatzen duenez, bidaiarien erabilera orokorreko garraio erregularreko zerbitzu publiko bat eteten bada, edo etete hori gertatzeko arriskua berehala sortzen bada, Administrazioak larrialdi-neurri bat hartu ahal izango du, zuzeneko esleipenaren bidez edo zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu bat luzatzeko edo zerbitzu publikoko betebeharrak jakin batzuk bete beharra exijitzeko akordio formalaren bidez.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan zehazten denez, honako hauek dira hezkuntza-sistemaren printzipioak: kalitatezko hezkuntza ikasle guztientzat, haien zirkunstantziak eta egoera edozein direlarik ere; ekitatea, hezkuntzaren bidez nortasuna erabat garatzeko aukera-berdintasuna bermatuko duena; hezkuntza-inklusioa eta eskubide- eta aukera-berdintasuna, edozein motatako diskriminazioa gainditzeko laguntzeko, eta hezkuntza-irisgarritasun unibertsala, zeinaren bidez konpentsatuko baitira desberdintasun pertsonalak, kulturalak, ekonomikoak eta sozialak, arreta berezia jarrita desgaitasunen ondorioz gertatzen direnei.

Pertsonen kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea dute, zenbait irakaskuntzatan, dohainik gainera, eta hezkuntza-administrazioek, pertsonen, aipatutako arauen eta printzipioen arabera hezkuntzarako eskubidea baliatzeko baldintzak ezartzeko betebeharra dute.

Eskola-garraioa eskubide horien egikaritze baldintzatzen duen faktorea da, eta, beraz, Hezkuntza Administrazioak egoera eta irakaskuntza jakin batzuetan bere gain hartu behar dituen betebeharren barruan dago. Gogorarazi behar da Konstituzioaren 27. artikuluan araututako oinarriko eskubide baten aurrean gaudela.

Eskola-garraioa, beraz, hezkuntzarako oinarriko eskubidearekin zuzeneko lotura duen funtsezko zerbitzua da, eta ikasturte bakoitzean, Euskal Autonomia Erkidegoan, milaka ikasle ikastetxera joatea bermatzen du.

Arestian aipatu diren ibilbideek 10.000 ikasle baino gehiagori eta horien familiei eragiten diete, eta, beraz, eskola-garraioko funtsezko zerbitzu hori ez emateak 10.000 pertsona baino gehiagoren hezkuntzarako oinarriko eskubideari eragiten dio.

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Organoaren (KEAO) aurka behin eta berriz jarritako errekurtsuen ondorioz lizitazio-prozedurak atzeratu egin direnez, lizitatuzaileen lehia txikia izan denez, eta egungo zerbitzu-emateetako batzuek zerbitzua ematen jarraitzeari uko egiten diotenez, gaur egun ez dago eskola-garraioko funtsezko zerbitzu osoa bermatuta.

2023ko irailaren 5a, asteartea

Euskal Autonomia Erkidegoko funtsezko zerbitzu publikoen kudeaketa eraginkorra ziurtatzeko, ezohiko mekanismoak erabili behar dira, kasu berezietan, premiazkoak eta atzeraezinak diren beharriaz erantzuteko, batez ere funtsezko sektoreetan, hezkuntzan kasu, zerbitzu horiek emango direla ziurtatzeko.

Horretarako, eta eskola-garraioaren funtsezko zerbitzua ematen jarraituko dela bermatzeko, eta aurretik aipatutako aurrekarien babesean,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eskola-garraioko zerbitzua ematen jarraitzea.

Agindu honen bidez, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko hirugarren mailako, Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasketak egiten dituzten ikasleentzako eskola-garraioko zerbitzua ematen jarrai dezaten agintzen zaie agindu honen I. eranskinean identifikatutako enpresei eta, hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkarteei, aipatutako eranskinean enpresa eta Aldi Baterako Enpresa Elkarte bakoitzarentzat identifikatutako ibilbideetan, zerbitzu hori barne hartuko lukeen kontratu berri bat gauzatzeko hasi arte.

Ibilbide bakoitzaren ezaugarriak, distantziak eta geralekuak 2022-2023 ikasturteko berak izango dira.

Bigarrena.– Ordainsaria.

Hezkuntza Sailak I. eranskinean identifikatutako ibilbideei dagokien zerbitzuaren benetako kostua ordainduko die dagokien enpresei eta Aldi Baterako Enpresa Elkarteei, haiek kostu hori egoki justifikatu ondoren. Zenbateko horri etekin industrialaren kostuari dagokion ehuneko sei (% 6) gehituko zaio.

Hirugarrena.– Justifikazioa eta ordainketa.

Hezkuntza Sailak gune egokia prestatuko du, enpresek eta Aldi Baterako Enpresa Elkarrekin hileroko identifikatu eta zerrendatu ahal izan dituzten sortutako kostuak, eta kostu horiek egiaztatze eta justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu ahal izan dezaten.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu hau bete beharrekoa da eta EHAA-n argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 1a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2023ko irailaren 5a, asteartea

ERANSKINA

Araba		
Ibilbidea	Enpresa	IFK
A0001	UTE ESCGV17(La Union,Burundesa,Onieva)	U95894234
A0002	Gran Turismo Araba, S.A	A01043025
A0003	UTE ESCGV17(La Union,Burundesa,Onieva)	U95894234
A0004	Servicios Libery 2020, S.L.	B24733495
A0007	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0009	UTE ESCGV17(La Union,Burundesa,Onieva)	U95894234
A0010	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0011	Alegria Hnos, S.A.	A01012822
A0012	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0013	Autocares Hijos M, Ramos S,L,	B20439196
A0014	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0015	UTE Alegria-Sarasola 4	U01560382
A0016	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258
A0017	UTE Alegria-Sarasola 4	U01560382
A0020	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0021	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0022	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0023	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0024	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0025	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0026	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0027	UTE (La Union Sa-Burundesa Sa-Onieva Sl)	U95815270
A0028	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0029	Servicios Libery 2020, S.L.	B24733495
A0030	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0031	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0033	UTE ESCGV17(La Union,Burundesa,Onieva)	U95894234
A0034	UTE (Riojana de Autocares-Autob, Parra)	U26530691
A0035	UTE (Riojana de Autocares-Autob, Parra)	U26530691
A0036	Autocares Victor Bayo, S,L,	B40156598
A0038	Autocares Sobron, S,L,	B01127935
A0039	Autocares Sobron, S,L,	B01127935
A0040	Autocares Sobron, S,L,	B01127935
A0043	UTE(Zadorra S,L,-Cadiñanos, S,L,)	U09589029
A0044	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0046	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0047	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0049	UTE Alegria-Sarasola 4	U01560382
A0052	Servicios Libery 2020, S.L.	B24733495
A0059	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0060	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0063	Bus Deobriga, S,L,	B09285719

2023ko irailaren 5a, asteartea

Araba		
Ibilbidea	Enpresa	IFK
A0064	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258
A0070	Gran Turismo Araba, S.A	A01043025
A0071	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258
A0072	UTE Alegria-Sarasola 4	U01560382
A0073	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0074	UTE Alegria-Sarasola 4	U01560382
A0075	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0076	UTE ESCGV17(La Union,Burundeseta,Onieva)	U95894234
A0080	UTE Alegria-Sarasola 4	U01560382
A0082	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0084	Servicios Libery 2020, S.L.	B24733495
A0085	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0086	Servicios Libery 2020, S.L.	B24733495
A0088	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0090	Gran Turismo Araba, S.A	A01043025
A0091	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0092	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0094	UTE(Zadorra S,L,-Cadiñanos, S,L,)	U09589029
A0096	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0097	Autocares Hijos M, Ramos S,L,	B20439196
A0099	UTE Escgv17(La Union,Burundeseta,Onieva)	U95894234
A0100	Autocares Sobron, S,L,	B01127935
A0101	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258
A0102	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258
A0104	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258
A0105	Autocares Sobron, S,L,	B01127935
A0106	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258
A0107	Autocares Victor Bayo, S,L,	B40156598
A0108	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0110	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0112	UTE ESCGV17(La Union,Burundeseta,Onieva)	U95894234
A0113	UTE ESCGV17(La Union,Burundeseta,Onieva)	U95894234
A0114	UTE ESCGV17(La Union,Burundeseta,Onieva)	U95894234
A0116	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0117	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0119	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258
A0120	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258
A0121	Autocares Sobron, S,L,	B01127935
A0122	Autocares Hijos M, Ramos S,L,	B20439196
A0124	Autocares Hijos M, Ramos S,L,	B20439196
A0127	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258
A0128	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258
A0129	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258

2023ko irailaren 5a, asteartea

Araba		
Ibilbidea	Enpresa	IFK
A0135	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0136	Autobuses Urbanos Angel Herrera, S,L,	B09015447
A0137	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0141	Servicios Libery 2020, S.L.	B24733495
A0143	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0144	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0145	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0146	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0158	UTE (Zadorra S,L,-Cadiñanos, S,L,)	U09589029
A0162	Autobuses Urbanos Angel Herrera, S,L,	B09015447
A0163	UTE(Jimenez SI-Logroza SI-Rio Alhama Sa)	U26551267
A0164	Autocares Victor Bayo, S,L,	B40156598
A0167	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0168	UTE (Zadorra S,L,-Cadiñanos, S,L,)	U09589029
A0170	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0171	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0175	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0177	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258
A0180	UTE(Zadorra S,L,-Cadiñanos, S,L,)	U09589029
A0191	UTE Alegria-Sarasola 4	U01560382
A0192	UTE (Zadorra S,L,-Cadiñanos, S,L,)	U09589029
A0195	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0196	Servicios Libery 2020, S.L.	B24733495
A0201	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0207	Servicios Libery 2020, S.L.	B24733495
A0208	Gran Turismo Araba, S.A	A01043025
A0216	Autobuses Cuadra, S,A,	A01018258
A0217	Autocares Sobron, S,L,	B01127935
A0221	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0222	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0223	Gran Turismo Araba, S.A	A01043025
A0224	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0225	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0226	Gran Turismo Araba, S.A	A01043025
A0227	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0228	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0231	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0232	Hijas de Jose Sarasola Autocares, S.L.	B20393666
A0233	Autobuses Hnos. Arriaga, S.A.	A01020080
A0241	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0242	Servicios Libery 2020, S.L.	B24733495
A0243	Autocares Victor Bayo, S,L,	B40156598
A0244	Autobuses Urbanos Angel Herrera, S,L,	B09015447

2023ko irailaren 5a, asteartea

Araba		
Ibilbidea	Enpresa	IFK
A0245	Gran Turismo Araba, S.A	A01043025
A0246	Bus Deobriga, S,L,	B09285719
A0300	Alegria Hnos, S.A.	A01012822

2023ko irailaren 5a, astearta

Gipuzkoa		
Ibilbidea	Enpresa	IFK
G3205	Barrio Autobusak, S.L.	B95593539
G5101	Autobuses Cuadra, S.A.	A01018258
G5508	Autobuses Cuadra, S.A.	A01018258

2023ko irailaren 5a, asteartea

Bizkaia		
Ibilbidea	Enpresa	IFK
B0101	UTE Betsaide (Alconada-Olaberria-Dario)	U95893053
B0302	Servicios Libery 2020, S.L.	B24733495
B0502	Autocares de Zalla, S.L.	B48943666
B0601	Servicios Libery 2020, S.L.	B24733495
B0603	UTE Goko-Bilbo Tour	U95895496
B0701	UTE Otoio (E.Jai-Alai-Eibar Bus-Mallabia	U75139279
B0801	Autocares de Zalla, S.L.	B48943666
B0903	UTE Porti-Bus S.L.-Jose Angel Busto	U95895132
B1003	Antonio Blanco e Hijos, S.L.	B48977698
B1005	Excursiones Tuñez-Sanchez, S.L.	B48109052
B1006	Gernika Bidaiak S.L.	B95334249
B1007	Excursiones Tuñez-Sanchez, S.L.	B48109052
B1008	Gernika Bidaiak S.L.	B95334249
B1009	Bustindui Bidaiak, S.L.	B48967160
B1301	Excursiones Tuñez-Sanchez, S.L.	B48109052
B1401	Autocares de Zalla, S.L.	B48943666
B1601	Carrocerias Saconi, S.L.	B48460547
B1603	Autobuses Juantxu S.L.	B48568935
B1702	Autobuses Juantxu S.L.	B48568935
B2201	UTE Otoio (E.Jai-Alai-Eibar Bus-Mallabia	U75139279
B2301	Bustindui Bidaiak, S.L.	B48967160
B2302	UTE Betsaide (Alconada-Olaberria-Dario)	U95893053
B2303	Gernika Bidaiak S.L.	B95334249
B2304	Bustindui Bidaiak, S.L.	B48967160
B2306	Autocares Mallabia, S.L.	B48898274
B2601	Soletto Bus, S.L.	B48954945
B2701	UTE (La Union Sa-Burundesa Sa-Onieva SI)	U95815270
B2702	Autocares de Zalla, S.L.	B48943666
B2902	UTE ESCGV17(La Union,Burundesa,Onieva)	U95894234
B3201	Excursiones Tuñez-Sanchez, S.L.	B48109052
B3301	UTE Porti-Bus S.L.-Jose Angel Busto	U95895132
B3302	Autocares Alba S.L.	B48732382
B3303	Autocares Alba S.L.	B48732382
B3304	Autocares Alba S.L.	B48732382
B3305	UTE Porti-Bus S.L.-Jose Angel Busto	U95895132
B3306	UTE Porti-Bus S.L.-Jose Angel Busto	U95895132
B3307	UTE Porti-Bus S.L.-Jose Angel Busto	U95895132
B3308	Autocares Alba S.L.	B48732382
B3309	Autocares de Zalla, S.L.	B48943666
B3310	UTE Porti-Bus S.L.-Jose Angel Busto	U95895132
B3501	Autocares Sobron, S.L.	B01127935
B3503	Rafa Busak, S.L.	B48492920
B3601	Autocares Olea, S.L.	B48522684

2023ko irailaren 5a, asteartea

Bizkaia		
Ibilbidea	Enpresa	IFK
B3603	Autocares Olea, S.L.	B48522684
B3604	Goko Tour, S.L.	B95147401
B3702	Autobuses de Lujua S.L	B48018600
B3901	UTE Betsaide (Alconada-Olaberria-Dario)	U95893053
B3902	UTE Betsaide (Alconada-Olaberria-Dario)	U95893053
B3903	Autocares Mallabia, S.L.	B48898274
B3904	UTE Betsaide (Alconada-Olaberria-Dario)	U95893053
B4001	Autobuses Cuadra, S.A.	A01018258
B4002	Autobuses Hnos. Arriaga S.A.	A01020080
B4003	Autocares Hijos M. Ramos S.L.	B20439196
B4102	Autocares Hijos M. Ramos S.L.	B20439196
B4105	Autocares Hijos M. Ramos S.L.	B20439196
B4107	Autocares Hijos M. Ramos S.L.	B20439196
B4108	Goko Tour, S.L.	B95147401
B4109	Autocares Hijos M. Ramos S.L.	B20439196
B4701	Gernika Bidaiak S.L.	B95334249
B4801	Goko Tour, S.L.	B95147401
B4802	Autocares Hijos M. Ramos S.L.	B20439196
B4803	Autobuses Hnos. Arriaga S.A.	A01020080
B4804	Autobuses Hnos. Arriaga S.A.	A01020080
B4805	Autobuses Hnos. Arriaga S.A.	A01020080
B4806	Ereaga Bidaiak, S.L.	B48957377
B4807	J.M. Vigiola, S.A.	A48416820
B4808	Autobuses Hnos. Arriaga S.A.	A01020080
B5001	Autobuses de Lujua S.L	B48018600
B5101	J.M. Vigiola, S.A.	A48416820
B5301	Antonio Blanco E Hijos, S.L.	B48977698
B5401	Autobuses Hnos. Arriaga S.A.	A01020080
B5402	San Millan Bus, S.A.	A48211189
B5403	San Millan Bus, S.A.	A48211189
B5501	Autocares Hijos M. Ramos S.L.	B20439196
B5502	Autobuses Juanxu S.L.	B48568935
B5504	Autocares de Zalla, S.L.	B48943666
B5506	Autocares Sobron, S.L.	B01127935
B5508	Autocares de Zalla, S.L.	B48943666
B5702	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B5704	UTE Goko-Bilbo Tour	U95895496
B5801	UTE Urkiola 2018	U95981247
B5804	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B5809	Eibar Bus S.L.	B95710539
B5901	Autokarrak Izurieta, S.L.	B95812228
B5902	San Millan Bus, S.A.	A48211189
B6001	Servicios Libery 2020, S.L.	B24733495

2023ko irailaren 5a, asteartea

Bizkaia		
Ibilbidea	Enpresa	IFK
B6101	Autobuses Cuadra, S.A.	A01018258
B6201	Busto Trueba, Jose Angel	14941410n
B6302	Zurekin Bus, S.L.	B95539417
B6501	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B6502	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B6503	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B6601	Autocares Sobron, S.L.	B01127935
B6701	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B6802	UTE Betsaide (Alconada-Olaberria-Dario)	U95893053
B6901	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B6902	Bustindui Bidaiak, S.L.	B48967160
B6907	Excursiones Jai Alai, S.L.	B48110365
B7001	UTE Alegria-Sarasola 4	U01560382
B7101	Guti-Bus Bidaiak, S.L.	B95222642
B7103	Guti-Bus Bidaiak, S.L.	B95222642
B7104	Rafa Busak, S.L.	B48492920
B7105	Soletto Bus, S.L.	B48954945
B7106	Autocares Sobron, S.L.	B01127935
B7107	Guti-Bus Bidaiak, S.L.	B95222642
B7201	J.M. Vigiola, S.A.	A48416820
B7202	Servicios Libery 2020, S.L.	B24733495
B7203	J.M. Vigiola, S.A.	A48416820
B7204	J.M. Vigiola, S.A.	A48416820
B7205	J.M. Vigiola, S.A.	A48416820
B7206	J.M. Vigiola, S.A.	A48416820
B7207	J.M. Vigiola, S.A.	A48416820
B7301	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B7401	UTE Otoio (E.Jai-Alai-Eibar Bus-Mallabia	U75139279
B7601	Autobuses Cuadra, S.A.	A01018258
B7602	Autocares Sobron, S.L.	B01127935
B7603	Autocares Sobron, S.L.	B01127935
B7703	J.M. Vigiola, S.A.	A48416820
B7801	Autobuses Garaigordobil, S.L.	B01236678
B7901	Autocares Hijos M. Ramos S.L.	B20439196
B7902	Autobuses Hnos. Arriaga S.A.	A01020080
B7903	Hijas de Jose Sarasola Autocares, S.L.	B20393666
B8001	Soletto Bus, S.L.	B48954945
B8101	Autocares Simon, S.L.	B48456255
B8301	Autobuses Cuadra, S.A.	A01018258
B8401	Autocares de Zalla, S.L.	B48943666
B8503	J.M. Vigiola, S.A.	A48416820
B8601	J.M. Vigiola, S.A.	A48416820
B8602	UTE ESCGV17(La Union,Burundesa,Onieva)	U95894234

2023ko irailaren 5a, asteartea

Bizkaia		
Ibilbidea	Enpresa	IFK
B8701	Autocares de Zalla, S.L.	B48943666
B8702	Autocares de Zalla, S.L.	B48943666
B8703	Autocares de Zalla, S.L.	B48943666
B8704	UTE ESCGV17(La Union,Burundesa,Onieva)	U95894234
B8707	Autocares de Zalla, S.L.	B48943666
B8901	Autocares Hijos M. Ramos S.L.	B20439196
B8903	UTE Porti-Bus S.L.-Jose Angel Busto	U95895132
B8904	Autobuses Cuadra, S.A.	A01018258
B9001	UTE ESCGV17(La Union,Burundesa,Onieva)	U95894234
B9002	Goko Tour, S.L.	B95147401
B9201	Soletto Bus, S.L.	B48954945
B9402	Autocares de Zalla, S.L.	B48943666
B9403	Autobuses Cuadra, S.A.	A01018258
B9404	Portibus, S.L.	B48192611
B9901	Bustindui Bidaiak, S.L.	B48967160
B9903	UTE Goko-Bilbo Tour	U95895496
B9908	Autocares Simon, S.L.	B48456255
B9909	UTE Porti-Bus S.L.-Jose Angel Busto	U95895132
B9913	UTE ESCGV17(La Union,Burundesa,Onieva)	U95894234
B9914	Autobuses Hnos. Arriaga S.A.	A01020080
B9915	Guti-Bus Bidaiak, S.L.	B95222642
B9916	Autobuses Hnos. Arriaga S.A.	A01020080
B9918	Autocares Sobron, S.L.	B01127935
B9919	Excursiones Tuñez-Sanchez, S.L.	B48109052
B9920	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B9921	Excursiones Tuñez-Sanchez, S.L.	B48109052
B9922	Autobuses de Lujua S.L	B48018600
B9923	Autocares Sobron, S.L.	B01127935
B9924	Autocares Sobron, S.L.	B01127935
B9925	UTE Goko-Bilbo Tour	U95895496
B9928	UTE Alegria-Sarasola 4	U01560382
B9929	San Millan Bus, S.A.	A48211189
B9930	San Millan Bus, S.A.	A48211189
B9931	Soletto Bus, S.L.	B48954945
B9932	J.M. Vigiola, S.A.	A48416820
B9933	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B9935	Antonio Blanco e Hijos, S.L.	B48977698
B9936	Autocares Olea, S.L.	B48522684
B9938	Autobuses de Lujua S.L	B48018600
B9939	UTE ESCGV17(La Union,Burundesa,Onieva)	U95894234
B9940	Autocares Olea, S.L.	B48522684
B9941	Autocares Olea, S.L.	B48522684
B9942	Autobuses Cuadra, S.A.	A01018258

2023ko irailaren 5a, asteartea

Bizkaia		
Ibilbidea	Enpresa	IFK
B9943	Autocares Olea, S.L.	B48522684
B9945	Autocares Sobron, S.L.	B01127935
B9946	UTE Alegria-Sarasola 4	U01560382
B9947	Autobuses Cuadra, S.A.	A01018258
B9948	Antonio Blanco E Hijos, S.L.	B48977698
B9949	UTE ESCGV17(La Union,Burundesa,Onieva)	U95894234
B9950	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B9957	UTE Goko-Bilbo Tour	U95895496
B9958	Soletto Bus, S.L.	B48954945
B9960	Excursiones Tuñez-Sanchez, S.L.	B48109052
B9963	Antonio Blanco e Hijos, S.L.	B48977698
B9964	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B9965	Bustindui Bidaiak, S.L.	B48967160
B9966	UTE Otoio (E.Jai-Alai-Eibar Bus-Mallabia	U75139279
B9969	Autocares Hijos M. Ramos S.L.	B20439196
B9973	Autobuses de Lujua S.L	B48018600
B9978	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B9981	Antonio Blanco e Hijos, S.L.	B48977698
B9982	Excursiones Jai Alai, S.L.	B48110365
B9984	UTE Porti-Bus S.L.-Jose Angel Busto	U95895132
B9986	UTE Arrate 2017 (Jaialai-Eibar-Mallab-Ar	U95895025
B9987	Bustindui Bidaiak, S.L.	B48967160